

## TOKI ADMINISTRAZIOA

## 3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

## TOLOSAKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzak, 2026ko uztailaren 30ean eginiko osoko bilkuran, hasiera batez onartu du 2026/9 zenbakia duen Kreditu Aldaketarako Espedientea, kreditu gehigarrien modalitateari dagokiona, Udalaren 2026ko aurrekontuaren barruan.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeek Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34 artikulua xedatzen duenaren ondorioetarako, jendaurrean jarrita dago ondorengo arau hauen arabera:

- a) Espedientea Tolosako Udaletxeko Kontu-hartzailetzan dago.
- b) *Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea*: hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.
- c) *Erreklamatu dezaketenak*: 21/2003 Foru Arauaren 17. artikuluan aipatzen diren interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten korporatiboek.
- d) *Aurkatzeko arrazoiak*: aipatu 21/2003 Foru Arauaren 17. artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.
- e) *Non aurkeztu daitezkeen erreklamazioak*: Udaletxeko Sarrera Erregistroan. 39/2015 Legeak, Administraziozko Prozeduraren Legeak, bere 16.4 artikuluan esaten duen tokietan ere bai.
- f) *Erreklamazioa egin behar zaion organoa*: Udalbatzarrari.

Espedientea jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Tolosa, 2026ko abuztuaren 3a.—Alkateordea.

(5370)

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Anuncio*

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 30 de julio de 2026, ha aprobado inicialmente el expediente de Modificación de Créditos número 9/2026, en la modalidad de créditos adicionales, dentro del Presupuesto del Ayuntamiento correspondiente a 2026.

En cumplimiento de lo dispuesto en el art. 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se somete a información pública conforme a las siguientes reglas:

- a) *Lugar donde se encuentra*: Departamento de Intervención.
- b) *Plazo para examinarlo y, en su caso, para presentar reclamaciones*: quince días hábiles contados a partir del siguiente también hábil del de la inserción de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.
- c) *Quiénes pueden interponer reclamaciones*: los interesados que relaciona el art. 17 de la Norma Foral 21/2003 antes citada, además de los miembros de la Corporación que hubieran votado en contra del acuerdo.
- d) *Motivos de impugnación*: los señalados en el art. 17 de la N.F. 21/2003 e infracción del ordenamiento jurídico.
- e) *Oficina de presentación*: Registro de Entrada del Ayuntamiento. También podrán presentarse en los lugares que señala el art. 16.4 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común.
- f) *Órgano ante el que se reclama*: Ayuntamiento Pleno.

Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado reclamación u observación alguna, se tendrá por aprobado definitivamente el mencionado expediente de modificación de crédito, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

Tolosa, a 3 de agosto de 2026.—La teniente de alcalde.

(5370)